

Araitz | Betelu | Larraun | Lekunberri

# MAILLOPE

266

2019ko otsaila

TOKIKOM

natari  
PRES



IZARRAK  
LAGUN ARTEAN

## NIKBOTAEZ WEBGUNEA BERRITU DUTE

Hondakinen Prebentziorako eta Ekonomia Zirkularra Sustatzeko Bulegoak [www.yonolotiro.es](http://www.yonolotiro.es) webgunea berritu du; hainbat aldaketa eta hobekuntza egin ditu webgunean eta kudeaketa-sisteman. Besteak beste, webaren alderdi grafikoa birdiseinatu da erabat, eta gailu mugikorren bereizmenetara zein teknologiarren betekizun berrietara egokitu.

Egungo kontsumo-ohiturek bultzatuta, oraindik ere bizitza baliagarria duten objektu asko baztertzin dituzte; webgunearen bidez, bestela hondakin bihurtuko ziren objektu batzuen bizitza luzatzea lortu da.

2011n jarri zen abian webgunea, eta kalkulatu dugu 2.300 kilo hondakin murriztu direla, batez beste, urteko.

Objektu gehienak etxetresna elektronikoak (ordenagailuak, garbigailuak, hozkailuak), altzariak, arropa eta oinetakoak, bizikletak eta haur-aulkiak, eta kirol-artikuluak dira.

2017-2027 Nafarroako Hondakinen Planean jasotako ekintza eta neurrien zati da webgunea. Hondakinen %12 murriztea du helburu legeak 2027rako, besteak beste. Horrez gain, aurreikusita dago tamaina handiko hondakinen %8 eta TEEHen %2 prestatuko direla berriro erabili ahal izateko.

Horretarako, Nafarroako Gobernuak Hondakinen Prebentziorako eta Ekonomia Zirkularra Sustatzeko Bulegoa sortu zuen, ondokoek osatua: Nafarroako Gobernuak berak, Iruñerriko Mankomunitateak, Nafarroako Hondakinen Partzuergoak (gainerako mankomunitateak barne hartzen ditu) eta Nafarroako Ingurumen Kudeaketak.

### Berrerabilpena Nafarroan

Bigarren eskuko merkatuak sustatzea, bai birtualak bai fisikoak, bitarteko egokia dira askotan hondakintzat jotzen diren objektuei berriro balioa emateko. Badauke Nafarroan beste berrerabilpen-esperientzia batzuk, batez ere gobernu kanpoko erakundeek eta tokiko beste entitate batzuek bultzatutakoak, eta batzuetan hondakin-mankomunitateek zein enpresa batzuek lagundutakoak.

Emausko Trapuketarien Fundazioak, Nafarroako Gobernuak erabilgarritasun sozialeko deklaratuak, hitzarmenak ditu hamar mankomunitaterekin tamaina handiko hondakinak (altzariak, arropa, objektuak...) eta Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinak (TEEH) bildu eta berreskuratzeko. Haren datuen arabera, 2017an 10.453.727 kilo bildu ziren guztira, 2016an baino %11,5 gehiago eta 2015ean baino %18 gehiago. Haietatik, %82 berreskuratu ziren, hau da, berriro erabiltzeko eta birziklatzeko prestatu ziren. Ohikoenak tamaina handikoak (%41,4), TEEHak (%25,9) eta ehungintzakoak (%15,1) izan ziren.

Horrela, [yonolotiro.es](http://yonolotiro.es) webgunea bat egiten du Nafarroan berrerabilpena bultzatzeko ekintzekin.

Hondakinen Prebentziorako eta Ekonomia Zirkularra Sustatzeko Bulegoa

## ETXEPARE SARIA 2019

### HAURRENTZAKO ALBUM ILUSTRATUAK SORTZEKO

· Haurrei zuzenduriko album ilustratuak aurkeztu ahal izanen dira sari honetara. Album ilustratu bezala ulertzen dira testua eta irudia elkarren osagarri dituzten lanak.

· Euskaraz idatziak, jatorrizkoak eta argitaratu gabek izanen dira. Ez da onartuko beste inondik moldatutako lanik, ezta aurretik saririk jaso duenik ere.

· Lehiaketan honela parte hartu dezake 16 urtez goitiko edonork: bakarka edo idazle eta ilustratzaileek osatutako taldean. Egileek nahi beste lan aurkez ditzakete.

· Formatua librea da, baina lanak ez dira 20 cm x 21 cm baino txikiagoak izanen, eta gutxienez 15 orrialde bikoitz izanen dituzte (bakarrik kontuan hartuko dira barneko orrialdeak). Testuek ez dituzte 4.000 karaktere baino gehiago edukiko (zuriuneak barne).

· Lehiaketan parte hartzen duten egileek albumaren maketa aurkeztu beharko dute, hau da, azken bertsioa inprimatuta, bukatutako albumean agertuko liratekeen testu zein ilustrazioekin. Ez da maketa koadernatu beharrik, nahikoa da maketa modu xume batez jostearrekin (grapekin, uztaiekin, espiralekin etab.). Horretaz gain, maketaren kopia bat bidali beharko dute: pdf formatuan, lan osoa fitxategi bakarrean. Kopia pendrive batean entregatuko dute. Albumaren testua ere aurkeztu beharko dute, Word formatuan (pendrivean sartu beharko dute).

· Lanak izengoitiaz izenpeturik egongo dira. Lanarekin batera gutun-azal itxi bat aurkeztuko da, kanpoko aldean lanaren titulua eta egilearen goitizenaz izango dituen eta barruan egilea edo egileen datuak. Lanak helbide honetara bidaliko dira: ETXEPARE SARIA, Leitzako Udala-Euskara Zerbitzua, Elbarren 1, 31880 Leitza (Nafarroa).

· Originalak aurkezteko epea 2019ko maiatzaren 10ean, ostiralean, itxiko da. Epaimahaiak erabakia hartzeko azken eguna 2019ko ekainaren 28a izanen da.

· Epaimahaiak haur literaturan eta ilustrazioan adituak diren pertsonak osatuko dute, eta udal eta mankomunitate antolatzaileek izendatuko dute. Udal eta mankomunitate antolatzaileetako teknikari batek idazkari lanak egiten ditu (hitza izanen du, baina ez botorik). Pamielak izendatutako pertsonak egon daitezke epaimahaiak egiten dituen bilkuretan (hitza izanen dute, baina ez botorik). Ez da saririk emanen epaimahaiaren iritziz gutxieneko kalitateko lanik ez badago. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izanen da.

· Sari bakarra emango da, 5.000 eurokoa, egile eskubideen aurrerapen moduan. Saritutako lana Pamiela argitaletxeak argitaratuko du euskaraz, eta argitalpean Etxepare sariaren aipamena egiten da.

Etxepare Sariak



04 ESKOLATIK MAILOPERA

05 BERTSO BERRIAK: Axier Salsamendi.

06 ELKARRIZKETA: Etxatxo Sagardotegia.

08 ELKARRI MOKOKA

09 KUXKUXEAN: Otsaileko zorion agurrak.

10 BATZARRE

12 LUZE ETA ZABAL

14 ERREPORTAJEA: Berri Txarrak.

21 NOR DA NOR

22 KULTURA

25 KIROLA

28 PLAZATIK PLAZARA

31 KONTU TXIKIAK

• **MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:**

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzi eta Uztegi.

• **ARGITARATZEN DU:**

Mailope Kultur Elkarteak. L.G.: NA 719/93  
Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.  
[issuu.com/mailopealdizkaria](http://issuu.com/mailopealdizkaria)

• **ERREDAKZIOA:**

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

• **ARGAZKIAK:**

Labrit, J.A. Garaikoetxea, R. Bosch, Ibarberri Ikastetxea, Aitor Ruiz, Igor De Castro, Asier Eleta, Joseba Eskamendi, Araizko Zaporeak, Amaia Mikeo, Joxe Mari Zabaleta, Maider Agirrebarrena, Ttutture Kirol Elkarteak, Nerea Mazkiran eta Mikel Huarte.

• **PUBLIZITATEA:**

Labrit Multimedia - 948 210 103 - [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net).

• **MAKETAZIOA:** Araitx Amatria.

• **TIRADA:** 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, Kontzejuak eta bazkideek babestutako aldizkaria.



# IBARBERRI



## Liburuen zuhaitza

Ibarberri eskolako 3.A mailako ikasleak gara eta gelan irakurketa sustatzeko liburuen zuhaitza marraztu dugu. Badakizue zein den gure helburu garrantzitsua? Ikasturte bukaerarako gure zuhaitza hostoz nahiz lorez hornitzea.

eta irakurtzen hasten gara txoko batean. Behin liburua irakurtzen amaituta, irakasleari jakinarazten diogu. Gero, liburuaren izenburua, egilea eta iritzia idazten ditugu hosto edo lore batean eta ondoren apaintzea izaten da ikasle onen lana. Bukatzeko, zuhaitzaren adar batean itsatsiko dugu.

### Nola?

Gelan, irakurketa modu desberdinetan egiten dugu, besteak beste, bakarka, bikoteka, hirunaka... Erabakitzen dugunean zein modutan irakurriko dugun, liburua aukeratu

### Gustatu zaizue?

Zuen geletan proiektu hau martxan jartzera animatzen zaituztegu 3.A mailako ikasleok. Gu asko disfrutatzen ari gara!!



eskolatik  
mailopera



**ASEGURU AHOLKULARIAK**

*Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da*

- ▶ [aseguruak@aseguruak.eus](mailto:aseguruak@aseguruak.eus)
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



**NEKAZARI, S.L.**

**Kubota**  
**STIHL**

Olagain. Mugiro. Nafarroa  
Tel.: 948504128  
Fax: 948504377  
[nekazarisl@hotmail.com](mailto:nekazarisl@hotmail.com)

**BIDEGOXO JATETXEA**

Jaunartzeak  
Ezkontzak  
Ospakizunak  
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia  
20400-TOLOSA 943 577 573  
[info@bidegoxo.com](mailto:info@bidegoxo.com)



### NON BOTA EZ DAKIZUNEAN...

Eta Intzan orain bi hilabete salatu zuten zabor pilaketen ondoren, oraingoan horra hor Uztegitik iritsi zaigun irudia! Etxean ditzuzun etxetresna elektrikoak eta bestelako hondakinak nola kudeatu ez badakizu? Deitu ezazu Emausko Trapuketarien Fundaziora 948 30 28 98 edota informa zaitez [www.yonolotiro.es](http://www.yonolotiro.es) atarian.



### EURITEEK ERAGINDAKOAK

Inguruko larreek ura eskertuko badute ere, azken euriteek hainbat luizi eragin zituzten eta zenbait errekatako ohiko ur emaria ere gainditu egin zen. Orain hilabete gutxi Arriben botatako presa inguruan esaterako, erreka bazterrak jan egin zituen urak.



### SANTA LUZIARA ERROMERIAN

Abenduaren 16an ospatu zuten arruiztarrek aurtengo Santa Luzia Eguneko erromeria. Izen bera daraman basilizara hurbildu ziren 40 lagun inguru eta bertan meza entzun zuten akordeoilari eta guzti.


## bertso berriak Mailoperi jarriak: *Beaza* (Azkarate)

### **Axier zer eskatzen diozu urte berriari?**

Zoriontasun pixkat  
behar duenari.  
Txarretik gutxi eta  
onetik ugari,  
hasi bezala buka  
dezagun kantari.

Urteari gogotsu  
behar zaio **ekin**,  
bi mila hemeretzin  
ibil gaitezen **fin**,  
maite dugunari eutsi  
bere **alde egin**,  
gure esku dago ta  
badugu **zeregin**.

Doinua: Iturengo arotza.



**Joseba Goikoetxearentzako puntua:**  
Negua ona doa azindarentzako

**Puntuak:**  
Behorra, lehorra, gogorra, egoskorra.

# “Lehen baino ohitura gehiago dago orain sagardoa edateko”

*Hemen da 2019ko sagardo denboraldia. Aurtengoan, Nafarroako Sagardogileen Elkarteak 250.000 litro kupeleratu ditu. Gurean, lau sagardotegi dauzkagu, Lekunberriko Toki Alai, Aldazko Martitxonea, Oderizko Juanluzenea eta Albiasuko Etxatxo sagardotegia. Azken hau, urtean itxirik egon eta gero, joan den urtean ireki zuen Belen Bengoetxea eta Jose Mari Mitxausek.*

## **Belen, badira urte batzuk sagardotegi hau lehenengoz ireki zenutela...**

Bai, ni gipuzkoarra naiz, Berastegi-El-duakoa, baina senarra bertakoa dut Albiasukoa eta etxe hau orain dela hogeitau urte berri genuen. Behean sagardotegia irekitzera animatu ginen eta alokairuan jarri genuen. Hasiarian pixka bat funtzionatu arren, gero aspertu egin ziren eta eskuz esku aldatzen joan da, baina ez zuten arrakastarik izaten eta hamar urteren ondoren ixtea erabaki genuen. -“Egunen batean taberna uzten baldin badugu agian hasiko gara!”- esaten genuen...

## **Zu bizitza osoan ostalaritzan aritu izan zara lanean...**

Bai, Donostian 42 urtez bizi izan naiz eta ostalaritzan 19 urtez gerotzik.

## **“Lau gauza horiek onak eta ongi eginak behar dute”**

Azken 30 urteetan Donostiako Alde Zaharreko Txalupa tabernan aritu gara lanean. Neguan gutxienez hamasei langile genituen eta udaran, Aste Santutik aurrera 26 edo 28 langun, lanean, gelditu gabe.

## **Hemengo erritmoa oso bestelakoa izango da...**

Bai, ez du zerikusirik. Hau hobya da, entretenimendu bat! Joan den urtean nire bikotekidea erretiratu egin zen eta Donostiako taberna uztea erabaki genuen. Eta esan nion: “Irekiko al deue behekoa?” Erreforma pixka bat in eta ireki ingoet!”. Gurekin Txalupan lanean aritu ziren bi pertsona hona etortzeko prest zeuden eta horrela animatu ginen eta iaz oso ongi egin genuen lan.

## **Zenbat lagun sartzen dira hemen?**

Ez da sagardotegi handia, 80 inguru. Iaz oso jende jatorra etorri zen eta oso gustura ibili ginen. Batez ere inguruko herrietako jendea bertaratu zen, baina baita Basaburua, Iruñea aldekoa eta Lantzeko kuadrilla handi bat ere. Hau oso herri lasaia da eta aparkatzeko nahikoa toki bada! [Karkar-kar].

## **Sagardoa ez duzue zuek egiten...**

Ez, Zapiainen sagardoa ekartzen dugu. Bi kupel dauzkagu, Zapiainen bi sagardo ezberdinekin. Eta sagardotegiko menua eskaintzen dugu: Txorizo egosia, bakailao tortilla, bakailaoa piperrekin, txuleta, intxaurrek, eta gazta eta menbrilloa. Lau gauza dira, baina horiek oso ongi ematen saiatu behar zara. Eta kobratzerakoan pasa gabe, hori ere oso garrantzitsua da!



Etxatxo Sagardotegiak bigarren urtez jarraian irekiko di aurret. Arg: J.A. Garaiakoetxea.

### Noiz arte izanen duzue irekita aurtengo denboraldian?

Maiatzaren 5era arte. Ostiral gauetik igande eguerdira bitarte eta beste-lako jaiegunetan eskainiko ditugu otorduak. Eta astez, enkarguz ere irekiko dugu, iaz bezala.

### Zein da txuleta on baten sekretua, Belen?

Horiek denak ezin dizkizut esan... Baina txuleta ona egiteko haragi ona eta ikatz ona behar da. Eta bakailaoa ere ona izan dadila. Lau gauza horiek onak eta ongi eginak behar dute. Aurten adibidez, gaztak Etxarritik ekarri ditugu, hiru gazta mota ezberdin ematen ditugu. Eta intxaurrek Berueteko neska batek ekartzen dizkit. Menbrilloa ere berezia da, guk Donostian urte luzez erabili izan duguna, oso ona. Ez naiz zentro komertzial batera joaten produktuak erostera. Bertakoa ematen dugu, ona.

### Zenbat lagun zabiltzate lanean?

Hiru sukaldean eta zerbitzari bat. Iaz, zerbitzari bila ibili nintzen, baina ez nuen lortu eta nire iloba bat aritu zen lanean. Aurten lehenago hasi gara bila eta Berueteko neska gazte bat dabil gurekin lanean.

### Sagardozalea izan zara beti?

Bai. Gure etxean, txikitan ere betidanik edaten zen sagardoa. Hemen ordea jendeak lehen ez zuen ohiturarik. Orain dela hogeitau urte sagardotegi hau lehenengoz ireki genuenean jendeak ez zekien sagardoa edatea. Askok ardoa eskatzen zuten eta ni horrek harritu egiten ninduen. Eta lehenengo urtean ohartu nintzen orain ohitura handiagoa dagoela sagardoa edateko, jendeari gustatu egiten zaiola, eta pozten naiz!



Lehenengo kuadrillak hurbildu dira dagoeneko txotx egitera. Arg: J.A. Garaikoetxea



Zapiain sagardoa eskaintzen dute Etxatxon. J.A. Garaikoetxea

## MUSIKA ETA BINGOA JUANLUZENEA SAGARDOTEGIAN!

Otsailaren lehen igandean Juanluzenea Sagardotegian afaltzera elkartuko dira Ttuturreko Kirol Elkarteko kideak. Musika eta bingoa ere izanen dituzte!

## Komunikabideak



●● Pello Azpiroz

lepa Andrea, zer moduz? Urte berri honetan lanpetuta nabil eta konturatzerako inauteriak gainean dauzkagu. Gure gizartea ere ez da gelditzen, komunikabideetatik berriak iristen zaizkigu etengabe. Gaurkoan, komunikabideen inguruan hitz egitera natorkizue, komunikabideek sorturiko manipulazioari buruz hain zuzen ere. Ukaezina da komunikabideek gure iritzien eta ideologiaren eraikuntzan eragina daukatela. Hori, agintean daudenek ederki dakite eta horretan baliabide asko jartzen dituzte, oso tresna ahaltsuak baitira. Interes ekonomikoek eta politikoek lotura zuzena daukate komunikabide handienekin, eliteen interesekin. Goebbelsek (nazien propaganda buruak) zioen bezala "gezur bat mila aldiz esanez gero egia bihurtuko da".

Gizarteari "informazio objektiboa eta independentea" helarazteko ardura daukaten enpresa horiek izugarritzko dirutza jasotzen dute (El Diario Vascok eta El Correek 2 milioitik gora Eusko Jaurlaritzatik, Ireki web-gunearen eta Kontratazio Publikoak Euskadin plataformaren arabera). Horrelako dirutzak jasoz gero, ez nau harritzen etengabe propaganda egitea ordaintzen duenaren eta boterean dagoenaren alde. Baina nire ustetan, kazetaritza independentea kaltetzen du nabarmen, ikuspuntu hegemonikoak sustatuz. Hain ezinbestekoa den informazio aniztasuna, guztiz baldintzatuta gelditzen da. Informazio aniztasuna badago, baina alde handiak daude batzuen eta besteen indarraren artean. Nabaria ere iruditu zait ere azkenaldian pil-pilean dauden gai askoren trataera ("La Manada", Altsasukoen auzia, Kataluniako egoera, Vox...) nahasia eta guztiz interesatua telebista kate nagusien aldetik.

Horregatik ezinbestekotzat jotzen dut iritzi kritikoa garatzea eta ikuspuntu desberdinak izatea gure iritzi propioa garatzeko. Horretarako, komunikabide independenteen edo ez horren baldintzatuen beharra inoiz baino handiagoa dela defendatzen dut. Hauen sostengu nagusiak bazkideak izango dira eta daukaten irismena ez da handia izango zoritxarrez. Baina ezinbestekoak dira.



●● Andrea Etxarri

Euria kristalaren kontra. Kanpoan ez da giro. Sofa gainera igo eta klik! telebista pizten dugu. Lehen, mandoko botoi bana zegoen kateko. Eta orain, geroz eta kate gehiago, eta nahikoa ez baduzu ordenagailuan gehiago. Geroz eta kate gehiago bai, baina hain ezberdinak al dira ba denak? Kate berri gehiago sortzeak iritzi ezberdin gehiago suposatzen al du? Askatasun gehiago?

Ados nago zurekin, komunikabideek eragin zuzena dute gizartearen iritzi publikoan eta egia da oso kontuan hartu beharreko gaia dela. Komunikatzeko garaian, denok hartu beharko genuke ardura. Bai, genuke diot, gu ere komunikabide txiki batzuk garelako, eta Interneten gaur egungo dimentsioarekin, are gehiago. Komunikatzeak bi atal ditu, informazioa ematen ari dena eta hori jasotzen duena.

Ematen ari denari, gauza hauek eskatuko nizkioke: orekatuak izan, zintzotasunez jokatu eta show-a ekiditea. Oreka diodanean, berri mota bakoitzari egokitzen zaion tartea eta tonua bereiztea da. Adbididez, albistegiaren atal berean ardura eta denbora bera eskaintzen zaio mundu mailako arazo bati eta kirolari batek erosi duen etxeari. Honela biek garrantzi bera dutenaren sentsazioa emanez. Denboraren kudeaketa ona, edukien emisioan funtsezkoa iruditzen zait. Zintzotasunez jokatzeko eta show-a ekiditea, berriak nobela ez bihurtzean datza. Morboa bilatzen duten detaileak ez argitaratzea eta besteen bizitza pertsonaleko miseriak aditzera dedikatzen diren tarte zabalei (umeen ordutegian horietako asko) betoa jartzea.

Jasotzen duenari, aldiz, kritikotasuna eskatuko nioke. Batetik, jasotzen duen informazioa kontrastatzearen oihitura garatzea. Bestetik, komunikabideek eskainiko dituzten edukiaren aukeraketan guk dugun paperaz jabetzea. Izan ere, komunikabideek bi finantziario modu dituzte, botereak eta ikusleria.

Beraz, har ezazu mandoa eta jarri kateak egokiak iruditzen ez zaizkizun edukiei.








**Urtzi Argiñarena Saralegi**

Otsailaren 5ean 6 urte.  
Zorionak Urtzi! Jarraitu orain bezain jator! Ongi pasa zure eguna. Muxu handi bat etxekoan partez.



**Joanes eta Mattin Goikoetxea**

Ilbeltzaren 28an eta otsailaren 13an.  
Zorionak aittona, biok gara ilbeltzekoak! Ongi Urte askotako Joanes eta Mattin!!! ZORIONAK!!!



**Nere Zabaleta Olasagarre**

Otsailaren 11n, 13 urte.  
Zorionak Lekunberriko Nere Zabaleta Olasagarreri, otsailaren 11n urte betetze eguna duelako. Egun on bat izan eta hamahiru muxu etxekoan partez.

**Itxaso Oreja Altuna**

Otsailaren 1ean, 4 urte.  
Urte askotako pottokita!! Segi beti bezain trebe ta alai! Muxu haundiet etxeko guztin partez!!!




**Julen Torrado Beraza**

Otsailaren 5ean, 15 urte.  
Gozatu zure egunean Julen, eta jaso muxu handi bat etxekoan partez.



**Oier eta Izei Goñi**

Otsailaren 1ean eta ilbeltzaren 16an.  
Zorionak bikote!! Ongi-ongi pasa eta muxu bat etxekoan partez.



**Araitz Martinikorena Irazu**

Otsailaren 8an, 8 urte.  
Zorionak bihotza!!!! Ondo pasa zure eguna. Muxu bat Amets, aita eta amaren partez.

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!  
Idatz iezaguzu [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net) e-postara hilaren 20a baino lehen.

**Antsoenea**  
BASERRIKO GAZTA  
948 513 468  
www.antsoenea.com  
Uztegi (Araitz)

**INFORMATIKA ARALAR**  
LEKUNBERRI - ARAITZ  
LARRAUN  
JALMENTA ETA KONPONTZER  
634 551 743  
infoaralar@gmail.com

**AUTOZERBITZUA - ARRAINDEGIA - HARATEGIA -**  
**PATXI GALARZA**  
Astelehenetik larunbatera  
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00  
Igande eta jaiegunetan  
8:00 - 14:00  
Irurtzun

**SAN MIGUEL**  
Taberna-Jatetxea  
Arribe  
948 51 31 34

## APIRILAREN 8AN PASAKO DA KORRIKA LARRAUNDIK

Hurbiltzen ari da Korrikaren 21. edizioa eta pixkanaka antolakuntzatik aurtengo lasterketari buruzko xehetasun gehiago ematen ari dira eza-gutzera. Apirilaren 4an Garesen hasi eta 14an Gasteizen amaituko da eta tartean Euskal Herri osoko hainbat eta hainbat herritatik pasako da. Aurtengoan Larraundik baino ez da pasako gurean. Apirilaren 8an iritsiko da Korrika. Aurreikuspenen arabera, arratsaldeko zazpiak aldera pasako da Uitzitik. Ondoren Lekunberrira jaitsi eta Urritza aldera egingen du ibilbidea. Gainera, Euskara Batua-ren 50. urteurrena dela kontuan hartuz, antolatzaileek oraingoan Txilardegi omenduko dute.

Larraungo AEK euskaltegian dagoeneko Korrika Batzordea sortu dute eta datorren otsailaren 5ean, arratsaldeko 18:30ean aurkezpena egingen da AEK euskaltegian.

Gogoratu Korrikaren alde egin dezakezula dagoeneko, 12 euroren truke Korrika Laguntzaile eginez, Kilometroak erosiz edota Korrikaren arropa eskuratuz.

Informazio gehiago: [www.korrika.eus](http://www.korrika.eus)



## GIZARTE ZERBITZUAK ANTOLATUTAKO FORMAKUNTZA TAILERRAK ESKUALDE OSORAKO

Urtero bezala, Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuak, Guraso Elkarteetan eta ikastetxeen laguntzarekin, formakuntza tailerrak eskainiko ditu datozen hila-betean Ibarberri eta Araxes ikastetxeetan. Aurtengo ordea, parte-hartzea eskualde osora zabaltzea erabaki dute eta beraz, Araitz-Beteluko familiak Ibarberriko tailerretan izen emateko aukera izanen dute eta alderantziz.

Ibarberri elikadura osasuntsuari buruzko tailerrarekin hasi dira. Joan den ilbeltzaren 28an izan zuten lehen saioa Egoitz Garroren eskutik saio teorikoa izan zuten eta datorren otsailaren 4an eta 11n 17:00etatik 19:30era bitarte gosari, hamaiketako eta askari osasuntsuak prestatzen ikasiko dute.

Bestalde, Araxes ikastetxean Nerea Mendizabal psikopedagogoa eta hezitzailearekin hiruna saio eskainiko dira:

### Otsailak 15

Haurrak dituen beldurrak nola lagundu

Ordua: 15:15- 17:15

Lekua: Araxes ikastetxean

### Martxoak 15

Anai-arreben arteko jelskortasuna eta

beraien arteko guda

Ordua: 15:15- 17:15

Lekua: Araxes ikastetxean

### Maiatzak 31

Haurrekin heriotzaz hitz egitea, bizitzako ikasgaia

Ordua: 15:15- 17:15

Lekua: Araxes ikastetxean

## SANTA AGEDA BEZPERAN KOPLA KANTARI

Datorren otsailaren 4an, Santa Ageda bezperan, ohitura den moduan, herritarrek koplak abestera aterako dira kalera. Lekunberrin 17:00etan dute hitzordua eta ondoren Etxarri eta Aldatzen ibiliko dira. Araitzen berriz, aurtengoan Arriben arituko dira kantuan.

## OTSAILAREN 9RA ARTE ARAITZEK BERE ERAKUSLEIHOA IZANEN DU GELTOKIN



Aurreko alean aurreratu genizuen moduan, ilbeltza-  
ren 25ean ireki zen Araizko Zaporeak egitasmoaren  
erakusketa Iruñeko Geltokin. Aurkezpen ekital-  
dian, proiektua azaltzeaz gainera, Kattalin dantza  
taldearen ikuskizuna, Kablearen inguruan egin-  
dako ikus-entzunezkoa eta bertako produktuekin  
egindako pintxoak dastatzeko aukera izan zuten  
bertaratu zirenek. *“Bizi dugun ibar txiki hau Iruñean  
ezagutaraztea da ekitaldi honen helburu. Bertako  
faunak, paisaiak, biztanleriak, bizimoduak... uste du-  
guna baino erlazio sakonagoa du hiriburuko biziare-  
kin. Biak uztartuz, elkarri kablea botaz, aurrera egitea  
da intentzioa. Herriak bizirik gaudela erakutsiz eta hala  
mantentzeko asmoz”.*

Idoia Zabaletak ateratako kable sistemaren ar-  
gazki zoragarrietz gain, Araitz ibarraren inguruko eta  
Araizko Zaporeak egitasmoaren nondik norakoak  
azaltzen dituzten bi panelek osatuko dute erakus-  
keta. Bailara ezagutzeko pantaila interaktibo bat ere  
jarri dute eta Araizko agroturismoari buruzko infor-  
mazioa, mapak, artisauei buruzko informazioa eta  
kable sistemari buruzko ikus-entzunezkoa izanen da  
ikusgai otsailaren 9ra arte. Animatu eta etor zaitetz!

## CEDERNA GARALURREK ENPRESA-ERAN- TZUKIZUN SOZIALAREN INNOVARSE 2018 ZIGILUA JASO DU

2018a ongi baino hobeto amaitu zuen Cederna Ga-  
ralur Elkarteak. 2018an InnovaRSE metodologia eza-  
rri izana aitortzen duen diploma jaso zuen joan den  
abenduaren 18an, Nafarroako Gobernuko lehen-  
dakariordea den Manuel Ayerdiren eskutik.

Elkarteak 2019an zehar erantzukizun soziala  
hobetzeko neurri zehatzak jasotzen dituen ekin-  
tza-plan bat definitu du. Cederna Garalur Elkarteak,  
Nafarroan halako jarduketa-plana duen tokiko  
ekintza-talde bakarra da.

Europako Batzordeak sustatzen duen enpre-  
sa-erantzukizun soziala (EES) enpresa kudeatzeko  
eredu berri bat da, erabakiak hartzeko prozesuan  
erabaki horiek ekonomian, gizartean eta ingurume-  
nean izango duten eragina aintzat hartzen duena,  
ikuspegi estrategiko eta operatibo batetik.



## XABI AZPIROZ LEHEN MAILAKO BINAKAKO ERREMONTAN TXAPELDUN

Xabi Azpiroz uitziarrak Xanti Uterga bikote zuela  
irabazi zuen joan den abenduan Binakako Erre-  
monte Txapelketa. Juanenea eta Endikari 40-27  
irabazi zieten Galarretan. Azpirotzek, lehen urtea  
izan du lehen mailan eta irabazi! Utergarentzako  
ordea, laugarren txapela izan da.



# Bakarrizketak

Zain nago Iruñeko tren geltokian. Asteazkena da eta geltokian ez dago jende askorik, nire antzera ikasketak direla eta hara eta hona ibiltzen den ikasle bat, edo hori uste dut. Gizon bat umetxo txiki batekin, arroparen koloreak dioenez behintzat neska da, hori sexista da. Norbaiten zain dirudite, traste gutxiegi oraindik ere oinez ibiltzen ez den umearekin bidaia egiteko. Baina noren zain egon daiteke? Haurraren amaren zain, aitona-amonaren zain... Eta zergatik izan behar du denak beti familia tradizionala? Agian aitaren zain dago, edo agian osaba da, edo zaintzailea... baina eta ez bada aita edo osaba edo zaintzailea? Eta umea bahitu badu eta trena hartu nahi badu ihes egiteko? Badaezpada daraman arropa eta ezaugarriren bat memorizatuko dut eta ordua... agian gero telebistan entzungo dut zerbait bahiketa bati buruz eta informazioa lagungarria izan daiteke.

Bat-batean beste emakume bat etorri da, erretzen ari da eta nire ondoan jarri da. Hemen erre al daiteke? Ezetz uste dut, baina ez dago inor debekatzeko edo ezer esateko. Maleta hartu dut eta kea iristen ez den lekura joan naiz. Beti egin ohi dudana zerbait da, kalean aurrekoa erretzen ari bada, birikak betetzen ditut eta azkar batean oinez hasten naiz aurreratu eta kea atzean uzteko. Horretan pentsatzen nagoela, semaforoak etorri zaizkit burura, zenbat denbora galdu ote dut semaforoa berde jarri zain? Bizitzako zenbat minutu... eta zenbat ordu eta egun edo aste izan daitezke



segundo guztiak batzen baditut... denbora galdua...

Baina denbora gehiago pasatzen dut etxean telebista edo ordenagailu aurrean edo ohean etzanda besterik gabe, ezer egin gabe. Semaforoko denbora ez da horren galera larria.

Txori bat pasa da, inolako zaratarik egin gabe, eta farolean gelditu da. Hara eta hona begira dago, zerbaiten bila balego bezala. Geltokiko tabernak, kanpoaldean terraza txikia dauka eta jendea pintxoak jaten ari da. Uste dut txoria zain dagoela jendea noiz altxatuko, laster merienda ordua da eta. Zein papur gustatuko ote zaie gehiago txoriei? Patata tortilla artean ibili den ogi zatiarena edo agian piperra gustatuko al zaio? Eta gustatzekotan, berdea edo gorria? Ia ziur hirugiharrezkoa ez duela nahiko... txoriek ez dute haragirik jaten... ez behintzat txori mota horrek. Egia esan, ez dakit haragia jaten ote duen edo ez... txoriei buruz oso gu-

txi dakidala konturatu naiz, baina gustatzen zaizkit.

Badator trena. Igo naiz trenera. Gauzak utzi ditut eta esertzera noa. Maleta urruti utzi behar izan dut esertzen naizen lekutik. Norbaitek hartu eta geltokiren batean jaisten badu? Maleta gabe geratuko naiz, eta barruko gauzak... Barruan zer daukadan erreparatu dut azkar, arropa, liburu bat edo beste, eta botak... Ez da garrantzizko ezer, baina nire gauzak dira eta badaezpada geltoki bakoitzean maleta aldera begiratuko dudala erabaki dut, behar duen lekuan jarraitzen ote duen.

Eseri naiz eta leiho ondoan nago, kanpora begiratu dut, lehen gizona eta umetxoa zeunden lekura, emakume batekin daude, trenetik jaitsi dela dirudi. Kasu honetan ez naiz testigu izango, eskerrak.

Lehen geltokia Gasteiz da, gero Miranda de Ebro, Burgos eta azkenik Palentzia. Paketea bidean da.



luze

Leire Aranburu

# San Balendin eta maitasunaren salerosketa

Laster San Balendin eguna izango da, alegia, maitasunaren eta maiteminduen eguna. Egun honen inguruan zentzu bateko kontsumismoa bultzatu ohi da, gehien bat. Maiteminduta ba omen gaude, ospatu beharreko eguna da.

Ez dago oso argi nor izan zen San Balendin, baina Erromako hiru martirietako bat izan omen zen eta III. edo IV. mendean bizi eta kristau erritoaren bitartez bikoteak ezkontzeagatik hil omen zuten. Gizarte kristauan, mendeetan zehar, ezkontza erlijiosoan izan da bikoteak batzeko bide bakarra baina gaur egun ez, ezkontza legala edo "izatezko bikotea" ere nahikoak baitira bikote harremanari izaera legala emateko. Egun, gainera, bikote harremanek ez dute zertan soilik heterosexualak izan, askoz irekiagoa eta naturalagoa bihurtu baitira.

Ezkontzak, erlijiosoak zein laikoak, bi pertsonaren arteko lotura erakundearen aurrean bermatzen du. Hala ere, ezkontza eta maitasuna ez dira sinonimo eta, gehienetan, denbora baten ondoren ezkontzideen arteko maitasunak indarra galtzen du. Poliki-poliki, ilusioa eta pasioa urratu egiten dira eta bakoitzaren alde ilunak hasten dira agertzen. Ordutik aurrera, ez badakigu egoera berriari aurre egiten, bikotearen lotura ahuldu egiten da. Izan ere, hiru modu desberdinetan bizi dezakegu bikote harremana.

Lehenengoa, eta gehienok egiten duguna, menpekotasun harremana litzateke, alegia, bi laranja erdi bihurtzen gara. Geure erdi bat



ukatu eta baztertu egiten dugu eta amesten dugu bestearen erdiarekin zorientasuna lortuko dugula. Baina bi laranja erdi, oso ondo itsatsita ere, usteldu egiten dira azkar batean. Harremana izateko modu hau kaltegarria da bi kideentzako, norberaren izaeraren zati bati uko egiten diotelako. Bikotekidea ez da kidea, behar dudan norbait baizik. Eta honek geure barruan gabezia eta gatazken atea zabaltzen du. Lehenago edo beranduago ezkonduak preso senti daitezke, erdi edo guztiz itota, haserre elkarrekin, galduak. Ezkontuta bai, baina, bikotea desegiteko bidean. Bizi osoa segi dezakete ezkontuta eta etxe berean bizitzen, baina aspaldi galdu egin zen bikote harremana. Gaur egun, gehienek dibortzioan bukatzen dute.

Bigarrena, guztiz kontrakoa da. Bikotea gara baina independente izan nahi dugu, guztiz. Elkarrekin gaude geure beharretako bat-

zuk asetzeko, sexua esaterako, baina, bestela segitu nahi dugu geure bizitza geure kabuz egiten. Konpromisorik ez eta ezer gutxi partekatzen dugu. Nork bere bizitza egiten du. Teilatu beraren azpian bizi gara baina bikotekidea arrotza dugu. Ez dugu inolako loturarik nahi, guztiz libre izan nahi dugu. Kanpotik ikusita, bi lagun direla pentsa dezakegu, gehiagorik ez. Batzuetan, bikotekideak menpekotasunean urte batzuk bizi ondoren, bigarren mota honetara pasatzen dira eta, beranduxea go banatu egiten dira.

Hirugarrena, oso gutxitan ikusten da. Bikotekideak emozionalki helduak dira. Haien arteko komunikazioa irekia eta zintzoa da. Elkarren ondoan bizi nahi dute baina menpekotasunetan erori gabe. Elkarren ondoan aurre egiten diete zailtasunei, aurrera jotzen dute bizitzaren bidean eta elkarren ondoan hazi egiten dira. Ezkon daitezke ala ez, ez da beharrezko, ezkontzak ez baititu haien arteko sentimenduak zaintzen eta indartzen. Haien arteko sentimendua, maitasun garbia da. Izan ere, maitale, lagun eta konprometituak dira. Bikote mota hau da, emozionalki osasuntsu bakarra, maitasunean oinarritzen baita.

Opariak eta San Balendinak ezin dira inoiz izan maitasunaren ordekoak. Maitasuna ezin da ez erosi, ez oparitu, ez saldu. Maitasuna geure barruan elikatu behar dugu eta has-teko, geure burua maite behar dugu besteak behar bezala maite izateko.



# Berri Txarrak: zaleen ahotik

*Joan den abenduaren 12an egin zuen publiko Berri Txarrak taldeak bere ibilbidean etenaldia eginen zuela. 25 urte eta gero, atsedendia hartuko du. Guk, ibilbidearen errepasoa taldekideekin egin beharrean, zaleen eta gertukoaren ahotik egin nahi izan dugu euren oroitzapenak eta esperientziak jasoz.*



**Ander Elizalde, Joseba Eskamendi eta Joxe Zubillaga. Beteluarrak dira hirurak. 23, 38 eta 47 urte dituzte. Taldearen ibilbidearen momentu ezberdinetan hasi ziren jarraitzaile izaten.**

Ander Elizalde, anaia zaharrena bitartez hasi zen Berri Txarraren

musika entzuten, hamabi urte ingururekin. Leitzan antolatu zen AtekaRock-en ikusi zituen lehen aldiz zuenean, 2011n. Eta geroztik, gertutik jarraitu ditu. Ander: "Geroztik inguruan jo duten bakoitzean kontzertuetara joaten saiatu naiz, Donostiako Aste Nagusian, Piratetan, Sanferminetan...".

Joseba Eskamendik gogoan du taldeak atera zuen lehen maketa hura etxean zuela. Lan horren ondoren, kaleratutako disko bakoitza erosten joan zen, 'Jaiio.Musika.Hil' disko-ra arte. Rubiok taldea utzi zuenean, ordura arte taldearekiko zuen grina hori ere hein batean hil egin zelako. "Niretzako zuzeneko bat ikustera joaterakoan, Rubio ikustea izugarria zen. Ez dakit ongi edo gaizki jotzen zuen, horretan ez naiz sartuko, baina haren zuzenekoak... 2008an, hemengo gaztetxo kuadrilla batekin joan nintzen bere azken kontzertura, Gernikara. Taxian joan ginen. Egun hartan, Aitor Oreja ere igo zen". Orain dela lau urte inguru, berriro ere Berri Txarrak gertuagotik jarraitzen hasi zen Joseba. Lehen kontzertu horien eta gaur egun taldeak eskaintzen dituen kontzertuen artean, alde handia sumatzen du. Joseba: "BEC-eko kontzertua izugarria izan zen, beste kategoria batekoa. Nola sartu ziren, bakarrik, ezer jo gabe, tarteko lasaitasuna eta bukaran egurra". Kontzertuetan lehen ilaran ibiltzen zen horietakoa zen Joseba. Kartera, belarritakoak eta gainean zeramana atzean gelditzen ziren lagunei eman eta aurreraino. Joseba: "Lehen, aurreraino joaten zinen, orain ez dute uzten, beti distantzia bat mantentzen da. Lehen, taula gainetik publikora salto egiten ibiltzen ginen. Ez zeuden oraingo segurtasun neurriak. Lehenengo ilara, lehenengo ilara zen eta ni Rubioren parean jartzen nintzen, beti".

Lan denak gustatzen zaizkion

Ander Elizalde, Joseba Eskamendik eta Joxe Zubillagak azarora bitarte kontzerturen bat edo beste ikusteko asmoa dute. Arg: Labrit.



arren, eta ibilbidean zehar taldeak egindako estilo aldaketekin eroso sentitu den arren, 'Jaiio.Musika.Hil' edo 'Libre' dira Anderren gogokoena. Josebarentzako aldiz, Alegia da abesti gustukoena, nahiz eta aitortzen duen ez dutela kontzertuetan maiz jotzen.

Biek sorpresaz hartu zuten taldearen azken komunikatua. Ander: "Nik pena izugarria hartu nuen. Lanean nengoela anaiak WhatsApp- ez bidali zidan komunikatua eta irakurri nuen... EZ DA POSIBLE! Baina ulergarria ere bada". Berri Txarrak ordezkartuko duenik aurkitzea ezinezkoa izanen den arren, Josebak argi dauka talde berriak etorriko direla atzetik: "Pilotariekin berdina esaten da, honi irabaziko dion inor ez dela egonen, baina etortzen dira berriak... Egia da Berri Txarrak asko jarri duela bere aldetik munduan zehar ibiltzeko. Ez dute dirua irabaztea izan helburu, ez dira Euskal Herrian aretoak betetzera mugatu, hara eta hona ibili dira, nahiz eta askotan taberna ia hutsetan jo behar. Azken aldia ez dakit nola moldatzen ziren, baina garai batean, Rubio ibiltzen zen txofer, izugarritzko kilometro pila egiten...".

Azaroran, Navarra Arenan izanen dira biak, azken kontzertuan, pistan gainera. Baina tartean, inguruan kontzerturen batera edo bestera joateko aukera izatea espero dute. Berri Txarrak ez da inoiz Betelun izan jotzen. Rubiok ere ba omen du bere herrian jo ez izanaren pena. Aurten oholtza berria omen dute herrian, beraz, agian...



Joxe Zubillaga inor baino hobeki oroitzen da taldearen lehen kontzertuaz. Rubio baino zaharxeagoa izan arren, kuadrilla berean ibiltzen zen Joxe. Areto-futbolearen ere elkarrekin ibilitakoak. Horregatik hasieratik bizi izan zuen, kuadrillako gehienek bezala taldearen hegaldia. Joxe: "Ni taldeak eskaini zuen lehen kontzertuan izan nintzen. Lekunberriko frontoian zegoen lokal batean eman zuten. 40 bat lagun edo izango ginen han. Ez dakit zenbat abesti jo zituzten, sei bat? Amaitu zutenean, jendeak **BESTE BAT, BESTE BAT...** oihukatu zien eta Gorkak azaldu zuen oraindik ez zeuzkatela abesti gehiago eta uste dut 'Eguzkiaren semea' izan zela errepikatu zutena. Pena da maketa hura jada ez izatea, nik uste denok erosi genuela zinta hura".

Hasieran lagunek ez omen zuten uste inondik inora ezagunak eginen

zirenik. "Guk betiko ezagunak genituen eta ez ginen kontzientzia hartzen ari ziren ospeaz. Euskadi Gaztean Berri Txarrak entzuten nuenean impresioa ere egiten zidan. Gogoan nuen taldeari zein izen jarri ez zekitela ibili zirela eta bat-batean irratian behin eta berriz entzutea... Jendea Rubiori autografo eske hurbiltzen zitzaionean, guri barrigura irteten zitzaigun. Honen autografoa zertarako nahi dute? [Kar, kar]. X batekin sinatzen zuen askotan".

Ospea ordea ez zen taldekide askorentzat oso gustagarria izan. Rubio lotsatia izan omen da beti, nahiz eta taula gainean guztiz aldatzen zen. Joxe eta Joseba aski ongi oroitzen dira Rubio Elizondora baserritarrez jantzita eraman zuteneko egunaz. Joxe: "Elizondon festak ziren eta bere ezkontzako despedida ospatzera joan ginen. Rubio baserritarrez jantzita, artilezko galtzerdiekin, abarkekin eta

# ERREPORTAJEA




izugarri pisatzen zuen akordeoitzarra bizkar gainean. Eta, hala ere, jendeak ezagutu egiten zuen. Eta, ez naiz gaztetxoez ari, gure adineko jendea begira-begira...". Joseba: "Rubiok akordeoia jotzen zuen umetatik eta akordeoi eta guzti eraman genuen, tabernaz taberna kalejirak jotzen ibili zen. Eta jendea ezin sinetsi guri galdezka ea Berri Txarrakeko pertsona bera zen!".

Joxek oraindik, azken kontzerturako sarrera lortzea espero du handik edo hemendik. Eta hartara, bere illo-

ba den Anderren aurrean harrotasunez esaten jarraituko du bera, Berri Txarraken lehen kontzertuan izan zela eta (akaso) baita azkenekoan ere. Edo berak taldearen baterietako bat margotu zuela.

Anderrek etapa berri honetaz disfruta dezatela opa die. Josebak atsedeen hartzen dutenean bueltatzea espero du, itxoiten egonen delako. Eta Joxek ere nahiko argi dauka: "Gorka musikari peto-pettoa da, artista, duen akats bakarra da Errealekoa dela!".



**Bar Ainhua**

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitaratekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak **Tostadak mermeladarekin** eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera  
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)  
948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com

**German Lasarte**  
ARBEONDO **HARATEGIA**  
Aralar kalea 9  
Lekunberri  
948504157

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.  
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:  
948 50 43 31  
Lekunberri

**aitz berri**

edertasun zentroa

Lako beikoa  
Betelu 31890  
948 513 083  
696 732 290  
aitzberri@hotmail.com



# “Euskara mundu guztira eramán dute”

**Lekunberriñ ere jarraitzaile fidelak izan ditu Berri Txarrak taldeak urte guzti hauetan, Igor De Castro (39 urte) eta Aitor Ruiz (34 urte), esaterako.**

Igorrek, Gorkak baino bi urte gutxiago ditu eta gertutik jarraitu dio bere musikari ibilbidean. Galder eta Davidekiko estimazio handia sentitzen badu ere, Gorka du bertakoena, musikaria, laguna eta herritarra baitu. Oso gogoan ditu Gaztetxean jotako bi kontzertuak eta baita Txantreako Akelarren jotakoa ere. Igor: “Akelarreako Aitor Orejak utzi ondorengo lehen kontzertua izan zela uste dut, hirurek bakarrik eman zuten lehena eta oroitzapen hunkigarriak dauzkat. Orain dela hiru urte Sanferminetan emandako kontzertua ere izugarria izan zen!”. Baina Igor bera ere beti ibili izan da musika munduaren bueltan eta Berri Txarrarekin batera eskaini izan ditu kontzertuak bere musika taldeekin. Igor: “100. kontzertua egin zutenean, Zata, gure kuadrillakoek sortu genuen taldearekin jotzera gonbidatu gintuen. Ikaragarria izan zen, denak erotuta anplifikadore berriak erosi genituen. Eta Korunbá taldearekin ere Ondarruko Kafe Antzokian jotzera gonbidatu gintuen”.

Gabari gaztetxean bizitako hamaika istorio ditu Igorrek. Igor: “Urko Zu-



Igor eta Aitorrek Rock-ak izanen duen galeraz arduratuñk daude. Arg: Labrit.

biria eta ni geundela Gorka etorri zen esanez, -Begira-begira ze rif-a atera dudan!-. ‘Eskuak-ukabilak’ abestia zen”. Disko guztiak gustatu arren, Haria bereziki lan kuttuna du.

Aitor Ruiz, jarraitzaile sutsua izateaz gainera, Gorkaren lehengusua ere bada eta umetatik joan ohi zen Allira lehengusua eta taldekideak entseatzen ikustera.

Gorka, Michael Jacksonen zalea omen zen. Baina Su Ta Gar ezagu-

tu zuenean izugarrizko aurkikuntza izan omen zen. Aitor: “Ayestarango hoteleko igerilekuan zela lagun batek Su Ta Garren ‘Jaiotze basatia’ abestia erakutsi omen zion”. Orduan sortu omen zitzaion beste estilo bateko musika sortzeko gogoia.

Baina nola fitxatu zituzten Rubio eta Aitor Oreja? Aitor Lekunberriko autobus geltokian antza. Igandero, asteburua Errazkinen pasa eta gero Iruñera joateko autobusa hartzen



**Lagunasesoria S.L.**  
Fiskala  
Laborala  
Kontabilitatea  
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232  
[lagunasesoria@terra.es](mailto:lagunasesoria@terra.es)



**SOTIL GARAJEA**  
BETELU  
948 513 007  
[sotilgarajea@gmail.com](mailto:sotilgarajea@gmail.com)



**ABOKATUAK**  
Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua  
Arretxea, 1º, Alli. Tfnoa: 609 130 555

Gorka eta Aitorrek euren lagunekin txaranga sortu zutenekoa. Arg: Mitxauseneako Artxibokoa.



zuen eta hantxe ikusi ohi zuten bere ile luze eta gitarrarekin. Egun batean hurbildu eta proposamena egin omen zioten Aitor eta Gorkak. Rubioren fitxaketa berriz, Alliko festetan izan omen zen. Aitor: "Uste dut Allin izan zela, bere txima luzeekin eta Sepulturako kamisetarekin ikusi zuten eta... Baina Rubio baina horien aurretik herriko beste birengan ere pentsatu zuten, Roberto Centeno eta Daniel Eguzkizarengan, nahiz eta azkenean ez ziren sartu".

Aitor, Berri Txarrak taldean teknikari lanetan ere aritutakoa da. Libre biran aritu zen teknikari lanetan. Eta bere bizitzako bi urterik onenak bezala gogoratzen ditu. 1997ko urriaren 25ean Lekunberriko frontoian ikusi zituen lehen aldiz kontzertuan Aitorrek, Bepiztu eta Alaitz eta Mainerrekin batera. Aitor: "Gogoan dut 1997an, lehenengo diskoko 'Hezkuntza ustea' bideoklipa grabatu zutela EITBekin Lekunberriko

eskolan. Gu zazpigarren mailan ginen. Dameroan eta kiroldegian grabatu eta gero, atsedenaldira, gure gelara etorri ziren eta zuzendariari baimena eskatu eta gero, mahaien gainera igotzeko esan ziguten. Ikasi nahi ez genuenaren aurpegia jartzeko esan ziguten. Denak zutik ginela, Oier Astiz mahaitik erori eta bere mahaia bultzada batez bota egin zuen. Besteengan efektua sortu zuen eta gela txikitzen hasi ginen denak. Mahai guztiak eta liburuak hautsi genituen. EITB-ek zentsuratu egin zuen bideo hura. Youtuben oraindik ikusgai dago, mahaia hausten hasten garen momentura arteko bideoa".

Igor: "Nik ez nituzke David eta Galder ere ahaztu nahi. Musikari izugarriak direlako biak. Niretzako Euskal Herrian dauden bateria-jole onenak hiru izan dira: Galder, SA-ko Roberto eta Kashbad-eko Txiki. Gorkari onena desio diot, bai musikari bezala eta baita pertsona bezala ere. Distantzia behar badu, indarrak hartu ditzala eta jarrai dezala hortan, beretzako dena delako eta guk berarekin izugarri gozatzen dugulako".

Aitorrek albistea kaleratu baino egun bat lehenago izan zuen taldearen erabakiaren berri Gorkaren ahotik eta iritziz aldarazten saiatu arren, erabakia hartuta zegoen. Aitor: "Euskara mundu guztira eraman dute eta niretzako Euskal Herriko talderik garrantzitsuena da zentzu horretan. Erreferentea. Zaila da euskararekin mundu guztian jotzea, horren atzean lan asko dago. Baina ziklo hau bukatu egin da".

## ETXATXO SAGARDOTEGIA (ALBIASU)

Urtarrilaren 19tik  
maiatzaren 5era bitarte irekita!

Ostiral gauetik  
igande eguerdira  
eta jai egunak.

EGIN ZURE ERRESERBA: 689 263 367

## “Gorkak musika behar du”

*Gorkaren beraren etxekoekin ere izan gara. Berri Txarrakeko abeslaria inork ongi ezagutzen badu etxekoak direlako. Luis Urbizu, Luisa Ruiz eta Nerea eta Maitane Urbizu.*

**Luisa:** Nik gogoan dut Ilargi tabernaren gainean bizi ginela eta behin, etxe azpian, Aitor Goikoetxea eta Gorka zeudela esan zidatela: “Ama, musika talde bat sortu behar dugu!”. Horrekin bueltaka zebiltzan eta... “Ama, zein izen jarriko zenioke zuk?”. Eta nik esan nien ba Nahi ta nahiez! Kontu horrekin hain zeuden obsesionaturik, ba nahi eta nahi ez sortu beharko zutela...

**Eta zuei ongi iruditu zitzaizuen?**

**Luisa:** Ez genion garrantzirik ematen. Ez genuen uste horrela gailenduko zirenik.

**Maitane:** Dena oso progresiboa izan da, pixkanaka-pixkanaka.

**Luis:** Nik pena hartu nuen Nahi ta nahiez utzi zutenean. Oraingo hone-tan hartu dudana bezala. Orduantxe izen ona hartzen hasiak zirenean utzi egin behar... eta orain ere pena daukat.

**Espero al zenuten?**

**Luis:** Nik bai espero nuen.

**Luisa:** Ez dakizu diskoa ateratzea zer-nolako sufrimendua den, berak disko bakoitzarekin pasa izan duen tentsioa etxean bizi izan dugu.

**Maitane:** Gorkak abestien letrei buelta asko ematen dizkie beti.

**Nerea:** Oso zorrotza da!

**Luisa:** Eta perfekzionista!

**Nerea:** Baina hori lehenengo ilaran egoteak duen zama ere bada... Ardu-ra bat ere baduelako.

**Maitane:** Erraztasuna handia dauka, baina, aldi berean, ongi egin nahi du eta oso zorrotza da bere buruarekin.

**Zein izan dira zuen uste taldearen momentu mugarririk?**

**Luis:** Krisiak izan ditu taldekideek utzi dutenean.

**Nerea:** Aitor Oreja joan zenean, nik neronek ere sekulako zalantzak izan



nituen. “Non ikusi da rock talde bat gitarrista batekin?” pentsatzen nuen. “Zenbat galduko duen eta zeinen pobre geldituko den taldea...” Baina gero egokitzapenak egin eta hobetu egin zuten. Baina, momentu hartan gaizki pasa zuten denek. Eta ondoren, Rubio joan zenean ere, ez zen erraza izan.

**Baina, hala ere, lortu dute taldea sendo mantendu eta aurrera egitea...**

**Nerea:** Bai. Gorkak bide hori izan du helburu. Besteen kasuan, bestelako adar batzuk zeuden euren bidean, lanpostu egonkorragoa, familia... Gorkarenean ez, Gorkaren apustua taldea izan da eta bere bidea oso garbi zeukan.

**Eta guraso gisa, hori nola hartu izan duzue?**

**Luis:** Ez gara inoiz frenoak izan, bultzada handiegirik ere ez diogu eman, baina frenoak ez.

**Nerea:** Nik uste gurasoei gogorrena kanpora hilabete batez edo gehiagoz

joaten zenean zela.

**Luisa:** Bai, bai, nik hori oso gaizki eramaten nuen.

**Luisa:** Baina beti egin izan du lana han eta hemen. Euskalerrira Irratian, Musika Eskolan, Gor Diskoetxean... Magisteritza eta Euskal Filologiako ikasketak ere egin zituen. Ez da inoiz geldirik egon!

**Eta zeintzuk izan dira urte haue-tako pozak?**

**Luis:** Prentsa eta kritika beti alde izan dutela uste dut. Agian azkenaldian, San Mameseko kontzertua dela eta gutxiago, baina orokorrean, alde...

**Luisa:** Momentu gogorrek bizi izan genituen ere Gaztesareako sareka da egin zutenean. Niri zitazio bat iritsi zitzaidan esanez, Gorka banda armatuko ustezko kidea izan zitekeela. Bera Kroazian zen oporretan eta ondoren, Madrilera joan behar izan zuen, Audientzia Nazionalera. Podemoseko udaletan kontzertuak eskaini zituztenean, ultraskuindarrak ibili zen eta beldur handia pasa nuen.

**Eta pozak, batez ere disko berri bat ateratzen zutenean eta kritika onak jasotzen zituztenean.**

**Nerea:** Niretzako momentu polita izan zen 2002ko biran, Sepulturarekin batera Elorrión jo zuenetan. Eskuak eta ukabilak abestiarekin, bat-atean "Arriskuak txalotzeko..." abestera, denak txaloka asi ziren. Orduan ohartu nintzen euren tokia hartu zutela eta hori ez zegoela gelditzerik! Geroztik uste dut jendeak abesti horretan beti txalo egiten duela.

**Hemen, Lekunberrin, hasieratik jarraitzaileak izan zituzten?**

**Nerea:** Hasieran ez. Euren kintako jendea ez zen oso rock zalea. Herrian bazeuden batzuk: De Castro anaiak, Lepo eta bere anaiak, Aitor Ruiz... Baina uste dut urte batzuk pasa behar izan direla, bertan jarraitzaileak izateko. Esango nuke orain gazteen artean jarraitzaile gehiago dituztela. Baina nik uste horrek ere lagundu egin diela Lekunberrin lasai bizitzen, normaltasunez. Uste dut Gorkak hori bera eskertu ere egingo duela.

**Kontzertu askotan izan zarete Luis eta Luisa?**

**Luisa:** Ez, ez gara kontzertu askotan izan, baina BEC-en eskaini zutena nik ez dut sekulan ahaztuko. Kursoalean orain dela zazpi bat urte eman zutena ere ederra izan zen, baina BEC-ekoa...

**Luisa, diskoa atera aurretik tentzioak izaten direla aipatu duzu... Halakoetan, nola laguntzen zaio artista bati?**

**Luisa:** Ba etxera bazkaltzera etortzen bada eta barrenak askatzeko gogoak badu entzun eta hitz eginez eta ez badu gogorik errespetatuz, edozein lanbide duen seme-alabarekin bezala. Egia da diskoek eta letrek oihartzun handia dutela, baina askotan askatu izan ditu barrena, nirekin batez ere.

**Nerea:** Gorka dortoka bat da. Hor dauzka bere abestiak, bere emozioak, bere errabiak...

**Luisa:** Eta gehiago ezin duenean lepoa luzatzen du... [kar, kar].

**Azken urteetan atzerrian ere asko ibili da... Hori familiarterako bizitzarekin ez da oso bateragarria izaten...**

**Luisa:** Ez.

**Nerea:** Baina, esan bezala, berak aukeratu du bide hori, oso argi izan du beti eta alde batera gelditu dira beste gauza garrantzitsu batzuk ere.

**Uste duzue uzteko erabakia hein batean horregatik izan dela edo musikalki erritmoa jarraitu ezinagatik?**

**Luisa:** Uste dut urte asko direla, desgastea ere handia dela... Ez dago arrazoi bakar bar.

**Nerea:** Gorka oso pertsona pasionala da, gauzak pasioarekin egiten ditu eta ez duena egin nahi ez du egingo. Eta sentitzen duena egiten du, baina pauso bat ematerako hamar mila buelta ematen dizkio. Beraz ematen duen pauso irmoa izaten da.

**Maitane:** Txin-txonean bezala! [Kar, kar].

**Nerea:** Bai, eta txin-txonean ere dena ematen du, ez zaio batere gustatzen galtzea e!

**Eta lehen kontzertuetan taula gainean ikusten zutenean?**

**Luisa:** Nik kontzertuetan edo argazkietan saltoka eta ikusten nuenean... Ohitu egin behar zara. Ez nuen imajinatzen horrela, umetan oso mutiko lasaia zelako.

**Maitane:** Baina umetatik, Haur Kantari Txapelketetan, herrietan akordeoia jotzen... plaza beti gustatu izan zaio.

**Luisa:** Bai, baina oso lotsatia da e!

**Nerea:** Musika behar du barruko kezka eta mamuak ateratzeko. Horregatik uste dut musikarekin jarraituko duela.

**Luisa:** Niri motza egin zait ibilbide hau, baina ez dit penik ematen, bere bizitzako etapa bat izan da, gaizki eta oso ongi pasa du. Dena eman du, ia nahi zuten lekura iritsi direla esan daiteke eta uste dut hobe dela pastela han gora uztea, hondar batzuk uztea baino. Ez dut pena sentitzen. Berak orain beste bizi proiektu bat dauka eta badakigu musika ez duela utziko, bere bizitza delako.

## “Beti saiatu izan da aurreko laneko formularik ez errepikatzen”

**Asier Eleta, Gorkaren kuadrillakoa da eta berarekin konpartitu izan ditu maila pertsonalean momentu on eta ez hain onak.**

**Lagun mina izanagatik zenbait pribilegio izango zenituen Asier...**

Batzuk bai, nik kontzertu asko ikusi izan ditut atzetik, euren teknikoekin. Eta askotan abestia eta disko osoak masterizaturik gabe bidaltzen zizkigun azken ukituak eman aurretik. Gogoan dut Eskoziara bidaiari joan ginen batean, ez zigula Payola diskoa erakutsi nahi, baina iluntzean bolumen altuegiarekin jarri zuen eta diskoa kalean izan aurretik, guk momentu hartan abesti horiek entzun genituen, bera ohartzen ez zela.

**Baina pertsona ezagun izatea beti ez da horren atsegina...**

Gorka ez da behin eroso sentitu izan ospearekin. Jendea hurbiltzen zaiotzanean atsegina izaten saiatzen da, baina ez du hori bilatzen. Gogoan dut oraindik, 2007an Copenagheko kanaletan bertako lamina ezaguna bisitatzen egon ginenekoa. Ertzean zegoen neska bat oihuka hasi zen Gorka, Berri Txarrak.... Guk izugarritzko sustoa hartu genuen. Egia da

batzuetan gure planak egokitu egin behar izan ditugula.

**Zuk ez zenuen sorpresaz hartu albistea...**

Ez, gira bat amaitzen zenean Gorkak hiruzpalau asteko krisia izaten zuen, hain egoten zen txikituta, ez zuela ezertarako gogorik izaten eta dena zalantzan jartzen zuen beti. Gero pasa egiten zitzaion, baina berak aitortu izan du geroz eta nekezagoa zaiola letrak egitea eta lan berriak egitea. Bera beti saiatu izan delako aurreko formularik ez errepikatzen.

Eta horrek ekarri dizkio batzuetan aurreko diskoak gustuko dituztenen kritikak eta ondoren zaletu direnen txaloak.

**Eta etapa berri honen aurrean zein mezu bidaliko zenioke?**

Alde batetik pena handia eman dit, Berri Txarrakek euskal musikari sekulako ekarpena egiten ziolako, eta estilo bat garatu ondoren eta honaino iristea horrenbeste kostatzen eta gero, pena ematen dit. Baina ulertzen dut erabakia. Iruditzen zait, musikari bezala oraindik asko daukala emateko.



Gorka kuadrillako lagunekin Eskoziara egindako bidaiari. Arg: Asier Eleta.

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA  
ARLOETAKO HORNIGAIK  
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

**URZUBI S.A.**

Tel. 948 50 42 41  
Fax 948 60 45 20

Lekunberri  
urzubi@hotmail.com

**TAXILON**



661 202 249  
(9 plaza)

Lontxo  
Otamendi  
Artola

E-posta: lotamendi5@gmail.com

Atallu - Araitz



**urrutia**  
enea

etxeko hestekiak

**LEKUNBERRI**

**OTXOTORENA**  
okindegia

**ARRIBE**

**ADII! TLF BERRIA:**

**948 51 30 32**



panaderia okindegia

**GALBURU eco**

Egurrezko laboreko ogi ekologikoa

Alde Zaharra 50 LEKUNBERRI 31870  
948 50 40 42

## Otsailaren 9an jokatu da 2019ko Nafarroako Bertsolari Txapelketako lehen final-laurdena



Bertan da 2019ko Nafarroako Bertsolari Txapelketa. Joan den hilean jokatu zituzten bi aurre-kanporaketen bitartez, txapelketan amateurak diren sei bertsolarik eta orain dela bi urteko azken sei sailkatuek txapelketan parte hartzeko txartela izan zuten jokoan. Iruñean jokatu zen saiotik Joana Ziganda, Diego Riaño eta Sahats Aleman sailkatu ziren. Bertan zen Aitor Irastortza ere, baina ez du lortu lehen seien artean sailkatzea. 213 punturekin bederatzigarren postuan gelditu da.

Irunberriko kanporaketatik, Xabat Illarregi, Endika Legarra eta Saats Karasatorrek lortu zuten Txapelketarako sarbidea.

Guztira, 24 izango dira otsailaren 9an Tuteran hasiko den 44. Nafarroako Bertsolari Txapelketan parte hartuko duten bertsolariak. Martxoaren 23an Iruñeko Anaitasuna kiroldegian jokatu den finalaren aurretik, lau final-laurden eta hiru finalaurreko izanen dira tartean.

Gurean ez da saiorik jokatu, baina etxetik ez oso urrun bertsolaritzaz gozatzeko aukera izanen dugu. Saio guztietarako sarrerak aurrez eros daitezke [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atariaren bitartez. Saioetan bertan, leihatilan ere erosi ahal izango dira, 16:00etatik aurrera (15:30etik aurrera finalaren kasuan). Gainera, saioak egingo diren herrietan ere aurre-salmentarako guneak egonen dira.



### Otsailak 9 – 17:30

1. Final-laurdena Tuterako Musika Eskolan.  
(Aimar Karrika, Eneko Fernandez, Alazne Untxalo, Mikel Lasarte, Joana Ziganda eta Saats Karasatorre)

### Otsailak 10 – 17:30

2. Final-laurdena Urdazubiko Kultur Etxean.  
(Julio Soto, Saioa Alkaiza, Iker Gorosterrazu, Iban Garro, Irati Majuelo eta Sahats Aleman)

### Otsailak 16 – 17:30

3. Final-laurdena Irurritako Gizarte Bilgunean.  
(Xabi Maia, Xabi Terreros, Joanes Illarregi, Patxi Castillo, Xabat Illarregi eta Endika Legarra)

### Otsailak 17 – 17:30

4. Final-laurdena Lizarrako Gazteriaren Etxean.  
(Eneko Lazkoz, Julen Zelaieta, Josu Sanjurjo, Amaia Elizagoien, Sarai Robles eta Diego Riaño)

### Martxoak 3 – 17:30

1. Finalaurrekoa Aurrerabiako Kultur Etxean.

### Martxoak 9 -17:30

2. Finalaurrekoa Etxarri Aranazko Kultur Etxean.

### Martxoak 10 - 17:30

3. Finalaurrekoa Lesakako Harriondoa Kultur Etxean.

### Martxoak 23 - 17:00

4. Finala Iruñeko Anaitasuna kiroldegian.

## UITZI

## Ane Alustiza eta Ana Ibarra izan dira aurtengo Uitziko ihoteetako maiordomoak

Ihauteriak antolatzeko ohitura zahar horri eutsi egiten diote oraindik Uitzin. Aurten, Ane Alustiza eta Ana Ibarra izan dira ihauteriak antolatzeaz arduratu direnak eta dagoeneko aukeratuta daude datorren urteko maiordomoak, Xabi eta Guratz Azpirotz anai-arrebak. Goiztiarrak izaten dira ihauteri hauek, gure eskualdean ez ezik, Nafarroa osoan ospatzen diren lehenak. Joan den ilbeltzaren bigarren asteburuan ospatu zituzten urteroko puska-biltzarrekin eta Merkualde elkartearen egin zituzten otordu ederrekin.



## LEKUNBERRI

## Angel Urrutia Iturbe XX. Olerki Sariketan parte hartzeko epea zabalik



Lekunberriko Mitxauseña Kultur Etxeak antolatzen duen XX. Angel Urrutia Iturbe Olerki Sariketa izanen da hurrengo eta dagoeneko lanak aurkezteko epea zabaldu dute. 18 urtetik gorako olerkariak parte har dezakete eta lanak 300 eta 600 bertso artekoak behar dute izan, gai eta egitura librean idatziak. Aurkezteko epea maiatzaren 30ean amaituko da eta epaimahaiak urrian emanen du ezagutzera saridunaren izena. Irabazleak, bere olerki lanarekin argitaratutako olerki liburuarren 150 ale jasoko ditu opari.

Lanak Mitxauseña Kultur Etxean aurkeztu beharko dira. Informa zaitez: 948 604 582 / [mitxauseña@yahoo.es](mailto:mitxauseña@yahoo.es).

**Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean**  
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta  
14:30etatik 17:00etara



# BACALAO ELKANO S.L.

**Industrialdea, 11**  
**31870 Lekunberri - Nafarroa**  
**Tel.- 948507319 Fax.- 948604792**  
[bacalaoselkano@jet.es](mailto:bacalaoselkano@jet.es)  
[www.bacalaoselkano.com](http://www.bacalaoselkano.com)



## Hesteetako hantura, eta nola ekidin

Aurreko atalean gure hesteetako-flo-  
rak zer garrantzia duen eta nola zain-  
du azaldu nizuen. Oraingoan, gaia-  
rekin jarraituz, hesteetako hanturaz  
hitz egingo dizuet. Kotsultara jende  
asko etortzen zait arazo honekin. Ho-  
nek arazo asko sor ditzake gure egu-  
erokoan.

Pertsona askok gantz asko edu-  
kitzen du tripa eta gerri aldean, baina  
ez da bakarrik gantza izaten, baizik  
eta hantura eta erretentzioa diges-  
tio-aparatuan. Idorreria ere gai hone-  
kin oso lotua dago.

Batzuetan, gure urdaileko mina,  
haizeak, hanturak... gure aparatuan  
zerbait gaizki dagoelako azaltzen  
dira. Askotan intolerantziak edo aler-  
giak izaten dira, beraz, behar diren  
probak egitea ongi legoke. Beste  
batzuetan ordea, ez dago intole-  
rantziarik, horregatik gaur aholku  
batzuk aipatuko dizkizuet:

1: Gasa duen jaki eta edariak alde  
batera utzi. Haizea sortzen dute  
gorputzean eta gainera digestioak  
zailtzen ditu.

2: Gatza. Gatz asko kontsumitzeak  
likidoen erretentzioarekin lotura du,  
beraz, gatzaren kontsumoa gutxitu,  
baita gatz asko dituzten jakiak ere.

3: Zuntza. Zuntzak gure diges-  
tioan laguntzen digu, beraz, zuntza  
duten elikagaiak jatea gomendatzen  
da, baina pasa gabe, gehiegi jateak  
ere arazoak sortzen ditu eta.

4: Hidratazioa. Ura edatea oso ga-  
rrantzitsua da, likidoen erretentzioa  
galarazten du eta gure digestio  
aparatua lana ongi egin dezan la-  
guntzen du.

5: Edulkoratzaile artifizialak. Sor-  
bitola, xilitola, maltitola... kaloria  
gabeko edulkoratzaileak dira baina  
asko kontsumituz gero, gure heste  
lodiko hantura sor dezake.

6: Ongi murtxikatu. Gure diges-  
tioa ahoan hasten da, murtxikatze  
prozesuan, oso garrantzitsua da mur-

txikatzen dugun bitartean ahoa itxita  
edukitzea haizea sar ez dadin.

7: Ariketa fisikoa.

8: Muskulatura edukitzea eta lantzea.

9: Deskantsua.

10: Jantzi oso estuak ez eramatea  
soinean.

11: Estresa kontrolatu, arnasa ongi  
hartu eta sakon.

Ea gustatzen zaizkizuen gaurko  
aholkuak. Hurrengoan gehiago!!!







## Atletismoan historia egiten ari dira Gana taldeko emakumezkoak

Lehenbiziko aldiz Nafarroako atletismoko historian, GANA taldeko master kategoriako emakumezko taldeak nazio mailako master klubaren arteko txapelketan parte hartzea lortu du.

Ez da edonolako lorpena, kontuan hartuta txapelketa horretan nazio mailako zortzi klubek besterik ez dutela parte hartzen eta GANA atletismo klubaren berriki sortu dela jakinda.

Ohorea edota meritua ez da bakarrik bertan parte hartzeko sailkapena lortzea. Atleta horiek emakumeak, amak, langileak eta kirolari apartak baitira. Emakume bakoitzak bere eguneroko lana bukatuta, batzuetan, eta hasi baino lehenago, besteetan, entrenatzeari ekiten dio. Emakume hauen artean Olatz Gonzalez Glaria lekunberriarra dago.

Emakume hauek, norberak bere espezialitatean (abiadura, hesiak, luzera saltoak, pisu jaurtiketak, altuera saltoak, iraupena) maila goreneko emaitzak lortu izan dituzte eta horri esker emakume hauek, gaur egun, master atletismo kategorian punta-puntako atletak dira.

Berrogei urtetik gorakoak izan arren, ia atleta gazteek bezainbeste entrenatzen dira, beraien seme-alabek bezainbeste. Nazio Mailako Master Klubaren Arteko Txapelketa heldu den otsailaren 10ean izanen da, Antequeran (Andaluzia). Zorte on!

## EHME eta Kilo- metro Bertikala erreferentziazko proben artean



2019an gurean egingen diren bi mendi lasterketa Euskal Mendi Federazioaren aurtengo egutegian izanen dira. Maiatzaren 18an izanen den Euskal Herria Mendi Erronka probako edizio berria, 2019ko Euskal Herriko Ultra Txapelketa izanen da. Eta bes-tetik, irailaren 14rako aurreikusita dagoen Intza-Ttuturre Kilometro Bertikala Euskal Herriko Proba Bertikalen Txapelketa izendatu du federazioak.

**M. Angeles  
Urrizalki**

**iragarkiak,  
berriak,  
eskelak...**

**Diario Vasco eta Diario  
de Navarrako  
Korrespontsala**

**948513056  
699179437**

**Atabal**  
okindegia

Era askotako  
ogiak eta gozoak

Etkez etxe  
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...  
**948513151**

**MAITE**  
harategia

**BERTAKO  
HARAGIA**

Txistorra, txorizoa,  
salxitxak,  
sukaldaturako platerak.  
Etxera eramateko  
zerbiztua ere eskeintzen  
dizugu.  
Antigua Kalea N°7  
31890 BETELU

Telf: 948 51 30 88  
maiteharategia@hotmail.com



## 168 korrikalari Araitz-Beteluko XIV. krosean

lazko parte-hartze bertsua izan du aurtengo Araitz-Beteluko Krosak. 168 korrikalari irten ziren joan den abenduaren 13an, Beteluko plazan jarritako irteera puntutik. Ezpeletako Jean-François Notebaert eta Cabanillaseko Aitana Gil izan ziren azkarrenak. Eskualdeko korrikalarien sailkapenari dagokionez, Xabier Satrustegi beteluarra izan zen helmugara iristen lehena, 26 minutu eta 47 segundotan. Eta emakumezkoetan berriz, Maddi Sotilek baino ez zuen lortu lasterketa bukatzea 38 minutu eta 38 segundorekin.

Aurretik eta ohitura den moduan, haurren lasterketak egin ziren eta ehun lasterkari inguruk parte hartu zuten. Aurtengoan, Araitz-Beteluko Kroseko antolatzaileek omenaldi berezia egin zioten Josu Estanga "Txakarro" beteluarri. Joan den abuztuan istripuz hil zen 38 urteko gazteak maiz parte hartzen baitzuen zita berezi honetan.



### Haurren lasterketako lehen sailkatuak:

#### BENJAMIN NESKAK:

- 1- Aintzane Eskamendi
- 2- Keira Arregi
- 3- Laida Garmendia

#### KIMUAK NESKAK:

- 1- Atia Arregi
- 2- Eider Seguroa
- 3- Iria Aibar

#### HAURRAK NESKAK:

- 1- Niobe Arregi
- 2- Idoia Arrospide
- 3- Naroa Arrospide

#### KADETE NESKAK:

- 1- Aileen Aranburu
- 2- Irune Alvar
- 3- Leire Olano

#### BENJAMIN MUTILAK:

- 1- Imanol Sotil
- 2- Joanes Zubillaga
- 3- Odei Goikoetxea

#### KIMUAK MUTILAK:

- 1- Conor Aranburu
- 2- Luca Martinez
- 3- Izei Goñi

#### HAURRAK MUTILAK:

- 1- Iker Etxarre
- 2- Joar Merino
- 3- Ander Garmendia

#### KADETE MUTILAK:

- 1- Ion Goikoetxea
- 2- Unax Olano
- 3- Oier Villar

**Eskualdeko korrikalarien sailkapena:**

IZEN-ABIZENA	HERRIA	DENBORA
Xabier Satrustegi	(Betelu)	00:26:47
Abule Esteban	(Betelu)	00:27:05
Mikel De Carlos	(Lekunberri)	00:28:46
Ander Arraztio	(Betelu)	00:29:42
Joanes Rekalde	(Betelu)	00:30:03
Joseba Astiz	(Lekunberri)	00:30:23
Julen Elordi	(Arribe)	00:30:26
Imanol Jaka	(Etxarri)	00:31:10
Alfontso Etxarri	(Arruitz)	00:31:12
Iñigo Lasarte	(Lekunberri)	00:31:30
Luis Mari Larreta	(Aldatz)	00:32:19
Imanol Estanga	(Lekunberri)	00:32:19
Ibai Soroa	(Arribe)	00:32:30
Ander Mikeo	(Arribe)	00:32:38
Ibai Arratibel	(Lekunberri)	00:32:39
Iñigo Garmendia	(Betelu)	00:32:59
Mikel Amundarain	(Arribe)	00:34:23
Jose Javier Arregi	(Betelu)	00:34:41
Ibai Aldaregia	(Lekunberri)	00:35:14
Andoni Urrestarazu	(Betelu)	00:35:44
Asier Elizalde	(Betelu)	00:35:47
Iñigo Oreja	(Errazkin)	00:36:00
Hildegart González	(Betelu)	00:36:07
Kiko Eskamendi	(Betelu)	00:36:49
Aitor Goikoetxea	(Betelu)	00:37:12
Maddi Sotil	(Betelu)	00:38:38
Iñaki Elizalde	(Betelu)	00:38:38
Iñaki Satrustegi	(Betelu)	00:48:19



# Baraibarko Kontzejuak egindako azken inbertsioak

Askotan herri txikietan berrikuntzak egitea erraza ez den arren, hainbat inbertsio egin ditu azken urtean Baraibarko Kontzejuak. Besteak beste, hainbat pista eta hiru aska berri zituzten joan den 2018ko udan. Abeltzaintza azpiegiturarako diru-laguntzarekin egin dira lan horiek. Guztira bost izan dira berritutako pista zatiak. Mikel Huarte, Baraibarko Kontzejuko Lehendakaria: *"Zenbait zati hormigoitu egin dira, baina gehienetan zagorra bota da. Apirilean aurkeztu genuen proiektua, baina abuztuan iritsi zitzaigun ebazpena eta irailaren 30erako eginga behar zuen. Beraz, hamabost egun, baino ez genituen izan lanak hasi eta amaitzeko. Baina kontratistarekin zortea izan genuen. Excavaciones Iñakiri esleitu zitzaizkion lan horiek eta azkar eta ongi egin zituen".*

41.000 eurotan (BEZ barne) esleitu zen lana eta 6.000 euroko gastua izan zuten proiektua egin eta lanak zuzentzeko. Mikel: *"26.000 euroko diru-laguntza jaso behar dugu, beraz, herriak dezente jarri behar izan du".*

Tokiko Administrazioaren Departamentuko determinazio libreko diru-laguntzetara hiru proiektu aurkeztu zituzten eta horietatik bi lortu dute au-

*"Tirolina eta adineko jendeak ariketa fisikoa egiteko makinak jarri ditugu parkean"*

rera eramatea: Eskola-etxea berritzeaz amaitzea eta parkea berritzea.

Legegintzaldi hasieran, Larraungo Udalak kontzejuei emandako 12.000 euro ingururekin hasi ziren berritzen Eskola-etxea, bertan dagoen etxebizitza berri eta alokairuan jartzeko asmoz. Diru horrekin gehi herriak jarritakoare-

kin, sukaldea berri, paretak margotu eta zurgin-lan batzuk egin zituzten. Guztira, 21.000 euro inguruko inbertsioa egin zen, baina oraindik guztiz bukatzeke zegoen. Leihoak aldatu, komuna berri eta azkeneko lanak egin dituzte dagoeneko eta aurki jarriko dute alokairuan. Tokiko Administrazioak emandako 21.700 euroko diru-laguntza horretatik, 14.000 euro gastatu ditu kontzejuak etxebizitza berritzen eta beste 8.000 euro parkean. Mikel: *"Kasu honetan, herriak ez du ia dirurik jarri behar izan, parkerako ez ge-*



 **ALIPROX**  
Lekunberri  
*janaridenda*  
hamabostaldiro  
eskaintza bereziak

*Iñigo Garaioa*  
**MARGOLARIA**  
 696 658 288  
LEKUNBERRI

**AURRERA  
TABERNA  
ARALAR, 15  
948 60 47 24**

**TAXI  
SOROA**  
609 168 217  
Bederatzi plaza

**IORTIA** EL INCA ESTIVAL HORTZ BIZITZA  
Juanjo Gaitte García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317  
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591  
Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005  
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69  
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·  
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

nuen proiekturik egin beharrik izan eta 200 euro inguru baino ez genituen jarri. Adineko jendeak ariketa fisikoa egiteko makinak jarri ditugu parkean eta baita haurrentzako tirolina bat ere. Izugarritzko arrakasta izan du tirolinak txikienen artean. Gainera, abuztuaren parkeko higigarriak guk geuk jarri genituen, auzolanean eta oso polita izan zen. Haurren gurasoak eta guraso ez zirenak joan ziren laguntzera. Uste dut hemengo haurrei ez zaiela luzaroan ahaztuko parke berria jarri zen eguna”.

Gainera, ingurumenaren alde ere apustu txiki bat egin dute Baraibarko herritarrek. Bina konpostagailu kolektibo jarri dituzte plazaren atzean. Bi herritar boluntario aurkeztu dira konpostagailuen kudeaketaz arduratzeko eta herritarrek dagoeneko hasiak dira euren hondakin organikoak bertan botatzen. Lehen konpostagailua jada bete omen dute.

Horren gustagarria ez den beste aldaketa bat ere egin dute. Ura behar bezala kobratzen hasi da Kontzejua. Mikel: “Lehen, etxe bakoitzeko eta abeltzaintza ustiategi bakoitzeko hainbeste kobratzen genuen eta orain kontsumoaren arabera kobratzen hasi gara”. 2018an tarifa merke bat aplikatu zen herritarrek gastu gehikuntza horretara egokitzen joateko,

baina aurten berriro kostu errealerara hurbiltzeko beste tarifa bat aplikatuko da. “Horri esker, 2018an, 4.500 euro kobratu ditu kontzejua. Kalkulatzen dugu urtero 8.000 euro inguruko gastua dela orain arte Kontzejua bere gain hartzen zuena urarengatik. Erabakia azken urteetako batzarrak jendetsuenean hartu zen eta ez zen ia eztabaidarik izan. Azken aldian lotsa ere sentitzen genuela esango nuke ura ez ordaintzeagatik. Baina hemendik aurrera, diru horrekin Kontzejua herriaren alde gauza gehiago egiteko aukera izanen du”.

2019ari begira beste zenbait inbertsio dituzte eskuartean. Suteak itzaltzeko ur-harguneak aldatzeko 17.000 euroko diru-laguntza jasoko dute esaterako. Gaur egun, hargune horiek lur azpian egonik zaildu egiten dute suteen aurrean herriko mangerak bertan lotzea. “Kanpoaldera atera behar ditugu harguneak. 2005ean mangera handi batzuk erosi genituen eta geroztik lau sute handi izan ditugu herrian. Neurri handi batean horri esker ez ziren etxeak guztiz erre. Beraz, harguneetan hobekuntza horiek egitea inbertsio ona da, orain oso egoera txarrean daudelako”. Plazako zoladura eta larre bat txukundu eta itxiturak jartzen ere zeregina izanen dute urte honetan zehar.

**“Hemengo haurrei ez zaiela luzaroan ahaztuko parke berria jarri zen eguna”**

**Hostal Betelu**

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Etorri eta on egin!

Erreserbak: 948513026 618557889

**AMAIRU BAR**

ETXEKO PIZZAK, KOPA, BERGIZAK

948504352

LAGUNDU MAILA

Mailopeko bazkidea izan nahi duzu? mailope@labrit.net

**LARRAUN** GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

**Gruas y Talleres LARRAUN S.L.**

Lekunberriko industriagunea, 21. nabea  
31870 Lekunberri Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356  
Telefonoa: 948 507 229  
Faxa: 948 507 281  
gtlarraun@gmail.com

## KONTU TXIKIAK

### IHAUTERIAK

#### *Beteluko inauteriak*

##### OTSAILAK 9

**10:00** Karroza eta mozorroen erakusketa plazan. Jarraian, kalejira Elektro Buiakarekin.

Tartean, ohitura zaharrei eutsiz, Karrika-dantza.

**15:00** Herri-bazkaria frontoian. (15:30etan ateak itxiko dira).

Bazkalostean, eman ezazu zure showa!

**17:30** Dantzaldia Fan&Go taldearekin.

**00:00** Dj Oixani goizaldera arte.

#### *Arruizko ihotek*

##### OTSAILAK 16

**11:30** Hamaiketako elkartean.

**12:00** Goizeko puske-biltze Attezarkorekin.

**14:00** Bildutakoarekin bazkaria elkartean.

**17:00** Bigarren puske-biltze eta iluntzean, Attezarkoren erreketara frontoi aurrean.

**20:00** Merendu-afaria elkartean.

#### *Baraibarako ihotik!*

##### OTSAILAK 16

**10.00** Herriko plazan elkartzea (Denok mozorrotuta)

**10.15** Gosaria herriko ostatuan (Herriak gonbidatuta)

**11.30** Kalejira herrian zehar Mendiberriren soinuarekin

**15.00** Bazkaria herriko ostatuan

Ondoren festak jarraituko du mendiberrirekin!

**Oharra:** aurtengo gaia "hawaianoak" izango da.

Gosaltzeko eta bazkaltzeko ostatuan izena eman otsailaren 13a baino lehen.

#### *Aldatzko ihotek*

##### MARTXOAK 2

**10:00** Gosaria martixa elkartean.

**12:00** Kalejira herrian zehar.

**14:00** Bazkaria Martixa elkartean.

**18:00** Poteoan sagardotegira.

**21:00** Aferia elkartean.

Martitxonea  
sagardotegia  
Inaxio Begiristain



Aldatz  
Nafarroa

948604607

Txooooo!

JUANLUZENEK  
SAGARDOTEGIA

MAIATZERA ARTE txotx denboraldia zabalik



948 604 571 | 680 652 183 | ODERITZ

## IHAUTERIAK

*Gaintzako inauteriak***MARTXOAK 16**

**11:30**ean hasita, egun guztian zehar puska-biltza etxez etxe trikitilariekin.

**19:00** Poteoa eta dantzatzeko musika elkarteko ukuiluan.

**21:30** Herri-afaria Sonbelu elkartean.

**00:30** Dj Oixanekin gaupasa ederra biharamuneko egunak argitu arte!

*Sekunberriko inauteriak***OTSAILAK 23 FEBRERO**

**11:00** Hamaiketako Kattagorri elkartean. (Sarrerak Mitxausenean 10 eurotan)

**13:00** Ihauterietako lehiaketa txarangaz alaiturik. Desfilea herriko plazan egingen da.

(Sari bakarra izanen da: 200€)

**19:00** Irurtzungo zanpantzarrak eta pertsonaiekin batera desfilea egingen da herrian barna.

**20:00** Aittezarkoren erretzea herriko plazan.

**SALGAI**

- Basoan hazitako txerri gizenak salgai. Harremanetarako: 663 486 255.

- Baserri bat salgai Atallun. Egoera onean eta oso paraje ederrean. Harremanetarako 646 703 705.

- Pisu berritua salgai Betelun. 90 m2-ko etxebizitza, igogailuarekin, hiru logela (horietako bi balkoiarekin), bi komun, saloia miradorearekin, sukaldea terrazarekin eta garaje itxia. Harremanetarako: 699 348 975.

**LAN ESKAINTZA**

- Garapen agente bat behar da. Mendialdean lehen sektoreko ekintza-plan estrategiko bat diseinatu eta gauzatu: lehen sektoreko, merkaturatzeko zirkuitu laburren, sukaldaritzaren eta turismo sektorearen arteko sinergiak garatu. Epea: 2019ko otsailaren 14a, 14:00etan. Argibideak: [www.cederna.eu/eus](http://www.cederna.eu/eus)

MERAKTU TXIKIA



**ekin**  
rotulacion  
948 85 32 79



**SAN MIGUEL**  
gasolindegia  
Xabier Garmendia 629 350 099  
Arribe-Atallu



**CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.**  
ZURGINTZA OROKORRA  
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI  
Telefonoa eta Faxa: 948507343  
[carpinteria@carpinteriaazpiroz.com](mailto:carpinteria@carpinteriaazpiroz.com)



**OGI-BERRI ALTZA**  
Aralar kalea, 41  
Lekunberri  
**OGI BERRI**  
OKIN ARTISAUAK 948604884



**tanatorios**  
**IRACHE**  
Betidanik  
ALTSASU - IRURTZUN  
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA  
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK  
\*\*\*\*\*  
24 ORDUKO TELEFONOA  
• 948 19 70 70 •  
[www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)

Aukeratu Publikoa, guztiona  
Elige La Pública, la de todas y todos



## AURREMATRIKULAZIOA 2019/2020 PREMATRICULACIÓN

Otsailaren 4tik 8ra | del 4 al 8 de febrero

[www.aurrematrikulazioa.nafarroa.eus](http://www.aurrematrikulazioa.nafarroa.eus) | [www.prematricula.navarra.es](http://www.prematricula.navarra.es)